

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

### UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

*Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzari hasierako onarpena ematea.*

Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2017ko abenduaren 14an egindako ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman dio Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzari.

Beraz, orain, erabaki hori eta dagokion espedientea jendaurrean erakusgai jarri dira, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Gipuzkoan hedapen handiena duen egunkari batean eta Urola Kostako Udal Elkartearen iragarkien taulan iragarkiak argitara emanaz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren) 49. artikulua xedatutakoa betetzeko. Erabakia eta espedientea honako hauen arabera jarri dira jendaurrean:

a) *Espedientea erakusgai dagoen lekua:* Urola Kostako Udal Elkarteko Idazkaritza (Urdaneta bidea 6, Zarautz).

b) *Agiriak aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea:* 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita, bulego-ordutegian.

c) *Erreklamazioak aurkezteko lekua:* Urola Kostako Udal Elkarteko erregistro orokorra.

d) *Erreklamazioaren organo hartzailea:* Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordea.

Erabakia eta espedientea jendaurrean erakusgai jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, hartutako erabakia behin betiko bilakatuko da, beste erabakirik gabe, eta 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, ordenantzaren testu osoa argitaratuko da.

Zarautz, 2017ko abenduaren 14a.—Igor Iturain Ibarguren, Udal Elkarteko lehendakaria. (8592)

### MANCOMUNIDAD UROLA-KOSTA

*Aprobación inicial de la ordenanza reguladora del servicio de recogida y transporte de residuos domésticos en el ámbito de los municipios que integran la Mancomunidad Urola Kosta.*

La Comisión Ejecutiva de esta Mancomunidad Urola Kosta, en sesión ordinaria celebrada el 14 de diciembre de 2017, aprobó inicialmente la ordenanza reguladora del servicio de recogida y transporte de residuos domésticos en el ámbito de los municipios que integran la Mancomunidad Urola Kosta.

El acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido se someten a información pública, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, mediante publicación de anuncios en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de la Mancomunidad Urola Kosta, así como en un periódico de los de mayor difusión de Gipuzkoa conforme a las siguientes reglas:

a) *Lugar donde se halla de manifiesto:* En la Secretaría de la Mancomunidad Urola Kosta. (Urdaneta bidea 6, Zarautz).

b) *Plazo de examen y en su caso, formular reclamaciones:* 30 días hábiles, contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en horario de oficina.

c) *Lugar de presentación:* En el Registro General de la Mancomunidad Urola Kosta.

d) *Órgano ante el que se recurre:* Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad Urola Kosta.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación o sugerencia alguna, se tendrá por definitivo el acuerdo adoptado sin necesidad de nuevo acuerdo, y se publicará el texto íntegro de la ordenanza, dando cumplimiento al artículo 70.2 de la Ley 7/1985.

Zarautz, a 14 de diciembre de 2017.—El presidente, Igor Iturain Ibarguren. (8592)